

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

Euskara eta Kulturako foru diputatuaren 333/2019 FORU AGINDUA, urtarrilaren 25ekoa, zeinaren bidez izendatzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 4ko 156/2018 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituen epaimahaiko kideak. Foru dekretu horren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2019ko ekitaldian kultura-proiektuak egiteko foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 4ko 156/2018 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2019ko ekitaldian kultura-proiektuak egiteko foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.

Foru dekretu arautzaile horren 9. Oinarrian honakoa ezarri da: aurkezten diren eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituen epaimahai kalifikatzailea eratuko da; kideak Euskara eta Kulturako foru diputatu andreak izendatuko ditu foru agindu baten bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Aginduaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

Oinarri horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauk, Euskara eta Kulturako Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudia onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 foru dekretuak eta gainontzeko baterako xedapenek Euskara eta Kulturako Foru Saileko titularrari ematen dizkioten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeko onorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATUTZEN DUT:

Lehenengoa: Abenduaren 4ko 156/2018 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea eta proposamena egitea eta hura Euskara eta Kulturako foru diputatu andre txit argiari aurkeztea, behin betiko ebazpena eman dezan. Epaimahaia honakoek osatzen dute:

Epaimahaiburua:

— Andoni Iturbe Amorebieta, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendari nagusia.

Ordezko epaimahaiburua:

— Ana de Castro Rubalcaba, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia.

Epaimahaikide titularrak:

— Dorleta Goiburua Muruaga, EUDELen ordezkaria.

— Montserrat Petralanda Gorrotxategi, Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Ataleko burua.

Ordezko epaimahaikideak:

— Ainara Bergaretxe Undabarrena, EUDELen ordezkaria.

— Mikel Etxebarria Etxeita, Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua.

Idazkaria titularra, botorik gabe:

— Mikel Murillo Aurrekoetxea, Kultur Proiektuen Zuzendaritzako teknikaria.



Ordezko idazkaria, botorik gabe:

— Aitziber Elezkano Altuna, Kultur Ekintzako Goi Mailako teknikaria.

Bigarrena: Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, baita Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuari ere, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena: Agintzea foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea

Honako foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko urtarrilaren 25ean.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA